



Kamisoï zuri zetazkoa. Alaine Agirre

Irudiak: Sara Morante

ISBN: 978-84-9109-330-5

Saila: Bakanak, 16

Orriak: 64

Salneurria: 15 €

Hamaika urte zituen uda hartan, gurasoek ingelesa ikasteko kanpamentura bidali zutenean. Nagusia izan nahi zuelako erosi zion amak lehenengo sujetadorea, baina haurra zen oraindik, ez zuen ezagutzen helduen mundua, eta are gutxiago gizon hark jokarazi nahi zion jokoaren arauak.

Hamaika urteko neska bat da, beraz, protagonista: haur bat. Eta haren parean, gizon heldu bat.

Gizonaren *modus operandia* ezaguna da: gabeziak dituen haurra aukeratzen du, eta behatu egiten du, zaindu. Atentzioa ematen dio, haurra ikusia sentitzen da, eta haurraren konfiantza lortu duenean, aurrera egiten du. Haurra gurasoengandik urrun dago, udako kanpamentu batean. Lagunengandik ere urrundu egiten du, bakartu. Amaieran gurasoen konfiantza ere irabazi egiten du gizonak, eta horren aurrean haurra bakarrik geratzen da, inbasioa erabatekoa izan da.

Armiarmaren teknika darabil gizonak neskaita horrekin; armiarma amaraunean ertz batetik erdigunera hurbiltzen ikusiko du irakurleak; ez derrepentean, hala ere: hurbiltzen doa, astiro, harrapakina konturatu gabe, edo, konturatuta ere, harrapatzaileari aurre egiteko modurik gabe. Baina irakurlea lekukoa da. Badaki armiarma nora doan, zertara doan. Ezinegenez egiten du aurrera irakurketan, baina ebitaezina den hori saihesteko ezin du ezer egin.

Umea biktima da baina ez daki biktima dela. Lagun bat topatu duela uste du, zaintzen duen norbait, bera den bezalakoa izanda ikusten duen norbait; aldi berean, ez daki oso ondo zergatik, baina gaizki sentitzen da, eta intuitiboki hartzen du harrapakina izatearen kontzientzia. Intuizio naturala, gazela kume batek ere badaki, ikasteko astirik izan ez duen arren, lehoiaren arriskuaz.

Dramatismo eutsi bat ageri da narrazioan zehar, bai kontatzen den istorioan, bai hori kontatzeko hautatu den idazkeran ere.

Hain zuzen ere, autoreak kontatu nahi zuen horrentzako hizkera egokia bilatu du: Idazkera hotza, lehorra, batez ere soila. Artifiziorik ez, hizkuntzaren jolasik edo su-ziririk ez. “Beti bezala, edertasunaren bila ibili naiz; baina beste batzuetan oparotasunaren bidetik bilatu izan dut, eta oraingoan soiltasuna izan da bidea”. Esaldiak laburrak dira. Etenak. Arretaz erabiltzen da hitz bakoitza, bere toki zehatza eta pisu doia kontuan hartuz. Eta esaldi bakoitza gezi bat bezalakoa da: zorrotza, norabide zehatza duena, bere helburuan jotzen duena.

Alaine Agirrek adierazi duenez, orain dela bi urte idatzi zuen *Kamisoï zuri zetazkoaren* lehen bertsioa. Eusko Jaurlaritzak beka bat eman zion, eta orduan beste bertsio bat idatzi zuen: “Azkenean konturatu nintzen ez zuela jarri nizekion osagai guztiak behar: Moztu eta trinkotu egin nuen, estilizatu. Elipsiaz baliatu nintzen, soberakoa kenduz, esan gabe utzitako hori irakurleak osa zezan”. Dramatismoa ez baitago hitzetan, irakurlearen imajinazioan baizik. “Hainbat aldiz bueltatu naiz testura —dio Alaine Agirrek—. Idaztaldiz idaztaldi finago, estilizatuago, geratzen joan da. Destilazio moduko bat erabiliz, azkenean kontatu nahi nuenaren esentzia gelditu da”.

Edizioari buruz, berriz, aipatu behar da argitaletxeak egin duen ahalegina objektu eder bat plazaratzeko. Eta horretarako, azal gogorra, papera eta tipografiaz gain, Sara Moranteren laguntza eskatu zuen, azken finean, Moranteren irudi bidezko irakurketa eransteke proiektuari eta Agirrerena osatzeko.

Donostia, 2018ko azaroak 28